Hortaz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Badaiako Mendilerroaren Komunitatearekin hitzarmena izenpetzeko onarpena ematea, Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziak komunitate horren kredituak eta eskubideak premiamendu bidez bil ditzan. Hitzarmena erabaki honen eranskinean dator jasota.

Bigarren.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari baimena ematea aurreko atalean aipatzen den hitzarmena eta hitzarmen hori betearazteko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko ekainaren 15a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**3.982**

**454/2004 ERABAKIA, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Vitoria-Gasteizko ondasun higiezinen gaineko zerga ordaindu behar duen mugatutako hiri lurzorua zati batean aldatzea behin betiko onartzen da.**

Maiatzaren 4ko 235/2003 Foru Aginduaren bidez behin-behineko onarpena eman zitzaion Vitoria-Gasteizko ondasun higiezinen gaineko zerga ordaindu behar duen mugatutako hiri lurzorua zati batean aldatzeari.

Aipatutako xedapenaren agintze zatiaren 4. artikuluan, Vitoria-Gasteizko Udalari haren berri emateko agindua ematen zen. Agindu hori 2004ko maiatzaren 6an bete zen eta udalak 2004ko maiatzaren 11n jaso zuen jakinarazpena.

Uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duenak, bere 11. artikuluko 4. paragrafoan udalari hamabost egun aitortzen dizkio egoki deritzona jakinaraz dezan.

Epe hori igaro ondoren, Vitoria-Gasteizko Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako erabakiarekin.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta diputatuen kontseiluak gaia gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, ondokoa

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Vitoria-Gasteizko ondasun higiezinen gaineko zerga ordaindu behar duen mugatutako hiri lurzorua zati batean aldatzea behin betiko onartzea. Horretarako, kontuan hartuko da otsailaren 10eko 91/2004 eta 92/2004 Erabakiek xedatutakoa; erabaki horien bidez behin betiko onartzen dira Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren bi aldaketa hauek, hurrenez hurren: alde batetik, 11 zenbakia duen “Esmaltaciones San Ignacio-Pemco-Campsa” izeneko BEPB berria sortzeko eta horren lurzoruak berriro kalifikatzeko aldaketa; eta bestetik, 12 zenbakia duen “Abetxuko Residencial Suroeste” izeneko BEPB berria sortzeko eta horren lurzoruak berriro kalifikatzeko aldaketa.

Bigarren.- Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuko da Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/89 Foru Aginduak 2. artikuluko b) idatz-zatiko 1, 2 eta 3. puntuetan xedatutakoa, herriguneetatik kanpo hiri ondasun higiezinek hartutako lurzoruei dagokienez.

Hirugarren.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean eta lurralde historikoan gehien saltzen diren egunkarietan argitaratuko da. Gainera, hamabost egun jarriko da jendaurrean, interesdun orok egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Izan ere, Vitoria-Gasteizko udaletxeko bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 11. artikuluko 5. paragrafoan eta berau garatzen duen abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluko 1080/1992 Foru Dekretuak 7, 8 eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko ekainaren 15a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Aprobar la suscripción con la Comunidad de la Sierra Brava de Badaya, del Convenio para la recaudación en vía de apremio, a través de la Agencia Ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, de los créditos y derechos correspondientes a la citada Comunidad, que figura en el Anexo al presente Acuerdo.

Segundo.- Autorizar al Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, para la suscripción del Convenio a que se refiere el apartado anterior, así como de cuantos documentos sean necesarios para su ejecución.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de junio de 2004.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**3.982**

**ACUERDO 454/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que aprueba definitivamente la modificación parcial de la Delimitación de suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Vitoria-Gasteiz.**

Por Orden Foral número 235/2003, de 4 de mayo, se aprobó con carácter provisional, la modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Vitoria-Gasteiz.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, disposición que se realizó con fecha 6 de mayo de 2004, siendo recepcionada por el Ayuntamiento con fecha 11 de mayo de 2004.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Habiendo transcurrido el plazo establecido el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral Titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Aprobar la modificación parcial de la Delimitación de suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, correspondiente al término municipal de Vitoria-Gasteiz, recogiendo lo dispuesto en el Acuerdo número 91/2004, de 10 de febrero, y en el Acuerdo número 92/2004 de 10 de febrero que aprueban definitivamente y respectivamente dos Modificaciones del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz, relativos, por un lado a la recalificación de suelos y creación del nuevo ámbito PERI número 11 “Esmaltaciones San Ignacio-Pemco-Campsa” y por otro lado a la recalificación de suelos y creación del nuevo ámbito PERI número 12 “Abetxuko Residencial Suroeste”.

Segundo.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

Tercero.- El presente Acuerdo será publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral número 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de junio de 2004.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**3.979**

**2004ko ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluak onartutako xedapenen laburpena.**

**- Foru Dekretuak:**

NEKAZARITZA SAILA

- 42/2004 Foru Dekretua, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, albaitari pribatuei albaitari gaituaren kalifikazioa emateko prozedura arautzen da.

KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILA

- 43/2004 Foru Dekretua, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, "Tallades" izeneko bidaia egiteko kuota onartzen da, Gazteriaren Foru Erakundeak 2004ko udarako sustatu duen jarduera kanpainaren barruan. Kanpaina horretarako kuotak eta hobariak Diputatu Kontseiluak onartu zituen apirilaren 27ko 35/2004 Foru Dekretuaren bidez.

**- Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

- 447/2004 Erabakia, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, 2004ko ekitaldian garatze bidean dauden herrialdeetan gizaldeko ekintzak bideratzeko emango diren dirulaguntzetarako deialdia eta oinarriak onartzen dira. Deialdiaren zenbatekoa guztira 60.000 euro da.

- 448/2004 Erabakia, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, haurrak hartu eta haiei osasun alorreko zaintza eta laguntza ematearen inguruko jarraipen proiektuak aurkezteagatik, ondoren zerrendatuta datozen Gobernuz Kanpoko Erakundeei hainbat dirulaguntza (guztira 105.000 euro) ematea onartzen da: "Vitoria-Gasteizko Familia Santuko parrokia", "Tierra de Hombres fundazioa" eta "Compartir elkarlan egintzetarako elkartea".

- 449/2004 Erabakia, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Acnur Euskal Batzordea GKEari 14.988,99 euroko dirulaguntza ematea onartzen da, Txaden babesa hartu behar izan duten sudandarrei bideratzeko.

- 450/2004 Erabakia, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, ebatzi egiten da "Iberdrola, SA" eta "Endesa Energia, SA" enpresek 2003ko azaroaren 3ko Vitoria-Gasteizko Udalaren Erabakiaren aurka jarritako 354 eta 363/04 auzi-errekurtsoetan agertzea eta parte hartzea. Azken erabaki horrek lurrazaleko, lurpeko edo aireko erabileragatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea onartzen du.

- 451/2004 Erabakia, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, ebatzi egiten da Eduardo Fernández de Pinedo Herrán jaunak Hirigintza eta Ingurumen diputatuaren 170/04 Foru Aginduaren aurka jarritako 169/04 auzi-errekurtsoan agertzea eta parte hartzea. Foru agindu horrek ez zuen onartu Tuesta eta Espejoren arteko errepidean orkatz bat jotzeagatik ibilgailuan izandako kalteengatik eskatutako ondare erantzukizunaren erreklamazioa.

- 452/2004 Erabakia, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, ebatzi egiten da José Ignacio Ancín Saenz de Navarrete jaunak (hirugarren adinekoentzako "El Rosario" izeneko etxebizitza komunitarioaren titularra) Gizarte Gaietarako diputatuaren 5/04 Foru Aginduaren aurka jarritako 123/04 auzi-errekurtsoan agertzea eta parte hartzea. Foru agindu horrek zigorrak ezartzen ditu Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea ez betetzeagatik.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

- 453/2004 Erabakia, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Badaiako Mendilerroaren Komunitatearekin hitzarmen bat izenpetzea onartzen da, Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziaren bitartez komunitate horretako eskubideak eta kredituak premiamendu bidean kobratzeko.

- 454/2004 Erabakia, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Vitoria-Gasteizko ondasun higiezinen gaineko zerga ordaindu behar duen mugatutako hiri lurzorua zati batean aldatzea behin betiko onartzen da.

- 455/2004 Erabakia, ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Ondasun Higiezinen Zergaren peko lurzoruaren eta hiri-eraikuntzen balioen txostena –Haraneko udalerrirako egindakoa- behin betiko onartzen da.

## Anuncios

### SECRETARÍA GENERAL

**3.979**

**Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión celebrada a fecha, el día 15 de junio de 2004.**

**- Decretos Forales:**

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

- Decreto Foral 42/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que regula el procedimiento para otorgar a los veterinarios privados la calificación de veterinario habilitado.

DEPARTAMENTO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES

- Decreto Foral 43/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que aprueba la cuota para el viaje denominado "Tallades" dentro de la Campaña de las actividades promovidas por el Instituto Foral de la Juventud-Gazteriaren Foru Erakundea durante el verano 2004, cuyas cuotas y bonificaciones se aprobaron por Decreto Foral del Consejo de Diputados 35/2004, de 27 de abril.

**- Acuerdos:**

DEPARTAMENTO DE DIPUTADO GENERAL

- Acuerdo 447/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que aprueba la convocatoria y bases reguladoras de las subvenciones para el apoyo a acciones humanitarias en países en vías de desarrollo durante el ejercicio de 2004, por importe de 60.000 euros.

- Acuerdo 448/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que aprueba la concesión de diversas subvenciones, por un importe total de 105.000 euros, a las ONGs "Parroquia de la Sagrada Familia de Vitoria-Gasteiz", "Fundación Tierra de Hombres" y "Asociación Acción Comunitaria Compartir por la ejecución de proyectos de continuidad relacionados con la acogida, atención sanitaria y asistencia a niños y niñas".

- Acuerdo 449/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que aprueba la concesión de una subvención por importe de 14.988,99 euros a la ONG Acnur Euskal Batzordea, con destino a los sudaneses que han tenido que refugiarse en Chad.

- Acuerdo 450/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que resuelve comparecer y mostrarse parte en los recursos contenciosos 354 y 363/04 interpuestos por "Iberdrola, S.A." y "Endesa Energía, S.A." contra Acuerdo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz de 3 de noviembre de 2003 aprobatorio de la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por ocupación del suelo, subsuelo y vuelo.

- Acuerdo 451/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que resuelve comparecer y mostrarse parte en el recurso contencioso 169/04 interpuesto por don Eduardo Fernández de Pinedo Herrán contra Orden Foral de Urbanismo y Medio Ambiente 170/04 que inadmitió la responsabilidad patrimonial por daños en vehículo como consecuencia de la presunta colisión con un corzo en el camino de Tuesta-Espejo.

- Acuerdo 452/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que resuelve comparecer y mostrarse parte en el recurso contencioso 123/04 promovido por don José Ignacio Ancín Saenz de Navarrete, titular de vivienda comunitaria para la tercera edad denominada El Rosario, contra Orden Foral 5/04 de Asuntos Sociales impositoria de sanciones por incumplimiento de la Ley de Servicios Sociales.

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

- Acuerdo 453/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que aprueba suscribir un Convenio con la Comunidad de la Sierra Brava de Badaya para la recaudación en vía de apremio, a través de la Agencia Ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, de sus créditos y derechos.

- Acuerdo 454/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que aprueba definitivamente la modificación parcial de la Delimitación de suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Vitoria-Gasteiz.

- Acuerdo 455/2004, del Consejo de Diputados de 15 de junio, que aprueba definitivamente la Ponencia de Valoración de suelo y construcciones de los bienes inmuebles de naturaleza urbana sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Valle de Arana.